

Ebazpena: R 79/2023

Espedientea: 16/2016 eta metatutako 17/2016, 19/2016, 20/2016, 21/2016, 22/2016, 23/2016, 24/2016 eta 25/2016

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 25a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) gatazka planteatu du, ez dagoelako ados Bizkaiko Foru Aldundiarekin (aurrerantzean, BFA), honako sozietate hauek egoitza fiskala 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aldatu izanaren inguruan: CONSTRUCCIONES EN COMUNIDAD, SL (aurrerantzean, CONSTRUCCIONES), NEVA DE INVERSIONES SL (aurrerantzean, NEVA), FITENI RESIDENCIAL SL (aurrerantzean, RESIDENCIAL), FITENI TERCIARIO SL (aurrerantzean, TERCIARIO), INVERSIONES TÁMESIS SL (aurrerantzean, TÁMESIS), INVERSIONES JJ RAMAR SL (aurrerantzean, RAMAR), INVERSIONES DANUBIO SL (aurrerantzean, DANUBIO), eta FUNDOS Y OBRAS SL (aurrerantzean, FUNDOS). FITENI INVERSIONES SL (aurrerantzean, FITENI) sozietatearen kasuan, berriz, egoitza fiskalaren aldaketaren data 2009ko uztailaren 27a da. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, hurrenez hurren, honako espediente-zenbaki hauekin: 16/2016, 17/2016, 19/2016, 20/2016, 21/2016, 22/2016, 23/2016, 24/2016 eta 25/2016.

AURREKARIAK

1.- CONSTRUCCIONES, RAMAR, DANUBIO eta FUNDOS sozietateak Madrilen eratu ziren 2001eko urtarrilaren 19an, eta guztiok egoitza soziala eta fiskala honako helbide honetan ezarri zituzten: Portuko Markesaren kalea 4, 3. solairua, Bilbo. Ondoren, 2010eko erdialdean, egoitza fiskala honako helbide honetara aldatu zuten: Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo. Sozietateon xede soziala ondasun higigarrien zein ondasun higiezinen erosketa, sustapena, eraikuntza, ustiapena eta antolaketa da, bai eta xede sozial nagusia laguntzeko bestelako jarduerak aurrera eramatea ere. Sozietateok sukurtsalak sortu zituzten 2001eko uztailaren 25ean Madrilen, helbidea Torrelaguna kalea 64 izanik. Sukurtsalak honako helbide honetara lekualdatu ziren 2006ko maiatzaren 8an: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril. 2014ko abenduaren 26an, CONSTRUCCIONES eta FUNDOS sozietateak xurgatu zituen FITENI SL sozietateak.

NEVA sozietatea 1999ko martxoaren 22an eratu zen Madrilen, NEVA DE INVERSIONES SIMCAV SA izenarekin eta egoitza soziala sozietatearen kudeatzaile eta gordailuzain den ARGENTARIA GESTIÓN DE PATRIMONIOS SGC SAreko egoitzan kokatuz: Claudio Coello 31, Madril. NEVA sozietatearen xede soziala balore higigarrien eta beste aktibo finantzario batzuen erosketa, edukitzea, gozamina, administrazio orokorra eta besterentzea zen. 2001eko irailaren 20an, entitate kudeatzailea aldatu zuenez (MERRILL LYNCH CAPITAL MARKETS ESPAÑA SA), egoitza aldatu zuen, Madril bertako Pablo Ruiz Picasso plazara (z.g.). 2004ko uztailaren 8an, SIMCAV bat izatetik sozietate mugatu bat izatera igaro zen NEVA, eta, ondorioz, egun duen izena hartu zuen, eta helbidea aldatu zuen: Torrelaguna 64, Madril. 2004an bertan, NEVAk xede soziala aldatu zuen era guztietako ondasun higigarrien zein ondasun higiezinen erosketara,

sustapenera, eraikuntzara eta ustiapenera, beste jarduera batzuen artean. Ondoren, 2006ko maiatzaren 8an sozietateak egoitza soziala Alcobendasera aldatu zuen (Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril) eta 2007ko ekainaren 6an Bilbora (Portuko Markesaren kalea 4, 3. solairua, Bilbo). Azkenik, 2010eko ekitaldiaren erdialdera, NEVAk egoitza fiskala ere aldatu zuen Bizkaira (Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo).

RESIDENCIAL sozietatea 2007ko abuztuaren 10ean eratu zen Madrilen, INVERSIONES TACARA SL izenarekin, eta egoitza soziala eta fiskala helbide honetan kokatu zituen: Portuko Markesaren kalea 4, 3. ezkerria, Bilbo. 2009ko uztailaren 20an izen soziala aldatu zuen, FITENI RESIDENCIAL SL izatera igaroz. Ondoren, 2011n, egoitza fiskala honako helbide honetara aldatu zuen: Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo. Sozietatearen xede soziala era guztietako ondasun higiezinaren erosketa, salmenta eta ustiaketa da.

TERCIARIO sozietatea 2007ko abuztuaren 10ean eratu zen Madrilen, INVERSIONES FRONTIS, SL izenarekin, eta egoitza soziala eta fiskala helbide honetan kokatu zituen: Portuko Markesaren kalea 4, 3. ezkerria, Bilbo. 2009ko uztailaren 20an izen soziala aldatu zuen, FITENI TERCIARIO SL izatera igaroz. TERCIARIO sozietateak sukurtsal bat eratu zuen 2009ko irailaren 24an, honako helbide honekin: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril. Ondoren, 2011n, egoitza fiskala honako helbide honetara aldatu zuen TERCIARIO sozietateak: Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo. Sozietatearen xede soziala era guztietako ondasun higigarrien, ondasun higiezinaren eta balore higigarrien erosketa, salmenta eta ustiaketa da, beste jarduera askoren artean.

TÁMESIS sozietatea 1999ko uztailaren 19an eratu zen Madrilen, eta egoitza soziala helbide honetan kokatu zuen: Portuko Markesaren kalea 4, 3. ezkerria, Bilbo. Sozietateon xede soziala, hasiera batean, era guztietako ondasun

higigarrien zein ondasun higiezinen erosketa, sustapena, eraikuntza, ustiapena eta antolaketa zen; ondoren, xede soziala zabaldu zuen sozietateak, karga eta merkantzien gordailutze eta biltegiatzea, eta era guztietako ibilgailuei bideratutako zerbitzuak ematea ere barnean hartuz, tartean ibilgailuon garbiketa. 2010eko urriaren 26an, TÁMESIS sozietatea data horretan bertan desegiteko akordioa publiko egin zen.

FITENI sozietatea 2009ko uztailaren 27an eratu zen Madrilén, eta egoitza soziala eta fiskala helbide honetan kokatu zituen: Portuko Markesaren kalea 4, 3. ezkerrean, Bilbo. Ondoren, 2011n, egoitza helbide honetara aldatu zuen: Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo. FITENI sozietateak sukurtsal bat eratu zuen 2009ko irailaren 24an, honako helbide honekin: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril. Sozietatearen xede soziala oso zabala bada ere, honako hauek dira jarduera nagusiak: era guztietako ondasun higigarrien eta balore higigarrien erosketa eta ustiaketa; eraikuntza-lanak egitea eta sustatzea, bai eta besterentzea ere; edozein xede eta mota sozialeko sozietateen administrazioa, akzioen gozamina eta partaidetza soziala, norberaren kontura.

2.- ZAEAK 2015eko ekainaren 5ean jakinarazi zizkion BFARI NEVA eta TÁMESIS sozietateen egoitza fiskala aldatzeko proposamenak, 2015eko ekainaren 15ean RESIDENCIAL, TERCIARIO eta FITENI sozietateenak, 2015eko ekainaren 17an FUNDOS sozietatearena eta 2015eko ekainaren 21ean CONSTRUCCIONES, RAMAR eta DANUBIO sozietateenak; kasu guztietan proposamena deklaraturako egoitza fiskala Bilbotik (Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo, Bizkaia), Alcobendasera (Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril) aldatzea zen, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin –FITENI sozietatearen kasuan 2009ko uztailaren 27tik aurrerako ondorioekin–.

3.- BFAk aipatu proposamenei uko egiten ziela jakinarazi zion ZAEARI hurrengo data hauetan: 2016ko martxoaren 29a (CONSTRUCCIONES eta NEVA), 2016ko apirilaren 7a (RESIDENCIAL, TERCIARIO eta TÁMESIS), 2016ko apirilaren 11 (RAMAR, DANUBIO eta FUNDOS), eta 2016ko apirilaren 21a (FITENI).

4.- ZAEAK dagozkion gatazkak planteatu zituen Arbitraje Batzorde honetan, hurrengo data hauetan: 2016ko apirilaren 27a (CONSTRUCCIONES eta NEVA), 2016ko maiatzaren 5a (RESIDENCIAL), 2016ko maiatzaren 6a (TERCIARIO eta TÁMESIS), 2016ko maiatzaren 10a (RAMAR, DANUBIO eta FUNDOS), eta 2016ko maiatzaren 25a (FITENI).

5.- Arbitraje Batzordeak, 2021eko azaroaren 21ean, espedienteen metaketa adostu zuen, eta, ondoren, guztiok prozedura arruntari jarraituz izapidetzen segi zuen. Hau da, zegokion izapidea bete zen, BFAk alegazioak egin eta zegokion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkez eta proposa zitzan; horrekin batera, espedientearen berri eman zitzairen prozedurako interesdun guztiei, espedienteen jasota dagoen emaitzarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio eginkizun hau: «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Metaketa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluko igorpenari jarraikiz, eta hauxe dio:

«Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

3.- Arbitraje Batzordearen 60/2023 Ebazpena

Planteatutako gatazkek bat egiten dute, *mutatis mutandis*, Arbitraje Batzorde honek 2023ko ekainaren 1eko 60/2023 Ebazpenean erabakitakoarekin, horrenbestez, bertako kontsiderazioei lotzen gatazka beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko.

Dena den, gatazka guztiotan komunak diren hurrengo alderdiak nabarmendu beharra dago:

- Zergapeko guzti-guztiok, eratze unetik bertatik edo ondorengo lekualdatzen baten ondorioz, GRUPO AUREN taldearen bulegoetan dute egoitza fiskala, hau da, jarduera nagusitzat aholkularitza fiskala eta kontablea, eta enpresen kudeaketa dituen talde baten bulegoetan. Gatazkok planteatu ziren unean, aipatu taldearen bulegoak honako helbide honetan zeuden: Rodríguez Arias kalea 15, 4. solairua, Bilbo. Zergapeko guztion xede soziala eta jarduera nagusia bat dator ia sozietate guztiotan: higiezinaren arloko negozioak. Salbuespen bakarra TÁMESIS sozietatea da, jarduera nagusitzat ibilgailuen garbiketa baitu.
- Administratzaileen zein ahaldunen egoitza fiskala Madrilen kokatuta dago.

- Zergapeko guztiok ez dute Bilbon zerbitzuak ematen dituen inolako langilerik. Zergapeko guztion langile lan-kontratudunek Madrilen dute lantokia; are gehiago, langile gehienen kasuan ere, euren bizilekua Madrilen kokatuta dago.
- Zergapeko guztion titulartasuneko banku-kontu gehienak Madrilen irekitakoak dira, eta, banku-kontuotan baimendutako pertsonak Madrilen dute egoitza, zehazki, helbide honetan: Anabel Segura kalea 10, Alcobendas, Madril.
- Zergapeko guztion higiezin gehienak lurralde erkidean kokatuta daude, nagusiki Madrilen. Errentamendu-kontratuak sinatu dituzten ahaldunek honako helbide hau aitortu dute egoitza profesional moduan: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril.
- Oro har hartuta, jasotako fakturen kasuan, honako helbide hau dago zehaztuta egoitza moduan: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril.
- Bizkaiarekin dagoen lotura bakarra bulegoak Bilbon dituen AUREN ASESORES BIO SL enpresak emandako aholkularitza fiskal eta kontableko zerbitzuak dira; era berean, PROMOCIONES KAI BIDE SL sozietateari alokatutako bulego bat ere Bilbon dago, artxibo jakinak biltegitratzeko eta noizbehinka bilerak egiteko erabiltzen dena.

Laburbilduz, bildutako zirkunstantzietatik ondorioztatzen den konklusioa 60/2023 Ebazpenean jasotako bera da, hau da, zergapeko guztion egoitza fiskala Madrilen dagoela 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin –FITENI

sozietatearen kasuan 2009ko uztailaren 27tik aurrerako ondorioekin–, zehazki helbide honetan: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ebaztea zergapeko guztion egoitza fiskala Madrilen dagoela 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin –FITENI sozietatearen kasuan 2009ko uztailaren 27tik aurrerako ondorioekin–, zehazki helbide honetan: Anabel Segura kalea 10, 4. solairua, Alcobendas, Madril.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, eta FITENI SL, NEVA DE INVERSIONES SL, FITENI RESIDENCIAL SL, FITENI TERCIARIO SL, INVERSIONES JJ RAMAR SL, INVERSIONES DANUBIO SL eta FITENI INVERSIONES SL sozietateei.